

Kontra(k)tu(ra) soziala

Jaio nintzenean, inolako baimenik eskatu gabe, norbaitek –zerbaitek– hitzarmen bat sinarazi zidan jendarteko kide izateko.

Hitzarmen guztiak bezala, honek ere –nik ez nekien arren– bi alde zituen: batetik, gizabanakoa, berez askea, baina jendartean bizitzeko norberaren nahimenari mugak jaritzeko prest; bestetik, antolakuntza sozialaren egitura, giza-abere horri babestu, eta laguntzeko prest. Hitzarmen berezi honek, gainera, bi atal zituen, ustez orekatuak: alde batetik, eskubideak zeuden, oinarritzko ahalmen batzuk; bestetik, betebeharrak, gaitasun horien truke bete beharreko baldintzak.

Jaiotzerakoan nik ez nekien denok sinatzen genuenik hitzarmen hau. Are gehiago, nik ez nekien denok derrigorrez sinatu behar izaten genuenik. Horregatik, pozik bizi izan nintzen haurtzaroan; eta ez nuen, garaiz, beharrezko epean, alegaziorik egin.

Behin batean, bospasei urte nituela, irakasleak esan zigun kanpoko norbait zetorrela, eta hari gazteleraz erantzun behar geniola. Guk ez genekien gazteleraz egiten, eta beldurtuta igaro genuen goiz osoa. Handik gutxira, berriz, berdez jantzitako gizon armatuek eskola –ikastola– itxi ziguten, eta oporrak izan genituen, gurasoek, garaiko agintari ez-demokrati-koekin, egoera zuzendu zuten arte.

Harrigarria dirudien arren, berrogeita bost urte geroago gogoan ditut egun haiek: ikuskari



DANI BLANCO

ilehori herren haren aurpegia, eta pikoletok lodikotea, pistola eskuan, gelako leihotik igarotzen. Nagusitzerakoan, konturatu nintzen, urteetako esperientziaz, eskubideak gehienetan lor ezinak zirela, baliabide faltagatik, egiturak zurruneak zirelako, edo baita, tokian tokiko funtzionario nahiz ordezkariak –azken hauek, nolabait geuk aukeratutakoak izan arren–, ez zutelako egoerak aldatzeko gogorik, ez asmorik.

Eskubideak urratu izan zaizkidalda sumatu izan dudanean –dena esan behar– ez naiz isilik gelditu, baina ez dut inoiz erantzukizuna zuena aurkitzerik lortu, eta ez dut lortu zanpatutakoaren erantzukizuna zuenak ordaintzerik.

Eta konturatu naiz, ostera, betebeharrak, guztiak, betearazten dizkidatela. Eta betetzen ez baditut mehatxuak, isunak, kartzela edo arazo larriak izan ditzakedala, egitura “babesle” –indartsu– horren aldetik. Beraz, niretzat behintzat, kontratu hori kontraktura mingarria bihurtu zaidala aspalditik, sentitzen dut.

Horregatik, azkenaldian, inposatu diguten lehendakari bati, hedabideetan, zapaldu duen jendartearekin –burua legitimatu nahian edo– kontratu soziala berritu nahi duela entzun diodanean, esan dut, “Nik ere bai!”. Nik kontratu berria nahi dut.

Baina ez dut uste gauza bera esan arren, gauza bera ulertu dugunik. Nire zoritxarrerako. ■



Inposatu diguten

lehendakariari

kontratu soziala

berritu nahi duela

entzun diodanean,

esan dut,

‘Nik ere bai!’



TXANDAN

Amatiño



Saudi Arabia-ko Industria ministroari

galdetu diote zein ote bere etorkizun-estrategia. Baita azkar erantzun ere: “Energia asko behar izango duen industria motaren aldeko apustua”. Mendebalde osoak ahalik eta energiarik gutxieneko industria amesten duen artean, Arabiak justu bestelakoa du helburu. Arrazoia guztiz ulargarria da, alegia: energia gero eta garestiagoa izango denez gero eta erreserbarik handienak arabiar penintsulan bertan egon, saudiar industria izango da lehiakorrena energia asko behar duten sektoreetan.

Ontsa lehiatzeko bidea

Beste muturrean, Euskal Autonomia Erkidegoa da –Luxenburgo, Malta eta Zipreren ondotik– kanpoko energia-menpekotasunik handiena duten europar herrialdeetakoak. Eta industria gure kontsumoaren %46,5 da, EB-27an %27,6 den artean.

Beraz, lehiakorrak izaten jarraitzekotan, energia urriago behar izango duen industriaren apustua egiteaz gainera, guk geuk izan beharko dugu –jarreraz, prestakuntzaz eta ezagutzaz– gero eta lehiakorragoak, oinarritzko energia kanpotik ekartzen jarraitu beharko baitugu luzaro. ■